


Grafenoz egindako lehen erdieroale funtzionala lortu dute

Grafenoz egindako lehen erdieroale funtzionala sortu dute Georgiako Teknologia Institutuko iker-tzaileek. Haien arabera, elektronika egiteko modu berri bati atea irekitzen dio aurrerapenak.

Azaldu dutenez, grafenoak zuen oztopo nagusia gainditzea lortu dute ikertzaileek. Izan ere, grafenoak ez dauka banda-tartea deitzen zaion ezau-garria, zeinaren bidez erdieroaleak piztu eta itzali egiten baitira. Orain lortu duten grafenozko erdie-roaleak, ordea, 10 aldiz mugikortasun handiagoa du siliziozkoak baino, eta silizioak ez dauzkan bestelako ezau-garri onuragarri batzuk ditu, gainera.

Taldeak 2001ean erakutsi zuen grafenoak elektronikarako aukera ematen zuela. Aurrerago, grafeno epitaxiala sortu zuen, silizio karburoaren kristal-aurpegi batean hazten den geruza bakarra. Hari kimikoki elkartuta, ezau-garri erdieroaleak erakusten hasi zen. Bide horri jarraituta lortu dute orain aurkeztu duten materiala.



Grafenozko lehen erdieroale funtzionala garatu dute.
ARG.: Georgia Tech Research.

[Ikertzaileen esanean](#), grafeno epitaxialak paradigma alda lezake elektronikaren alorrean, eta erabat berriak diren teknologiak ahalbidetu, haren ezau-garri bakanak baliatuz. ●

Hegazti-gripeak gutxienez hartz polar bat hil duela baieztatu dute



Hartz polarra mehatxatutako espezieen ikurra da.
ARG.: NPS/Jabego publikoa.

[Hegazti-gripearen azken izurria](#) 2021ean identifikatu zen, eta, geroztik, milioika hegazti basati eta milaka ugaztun hil ditu H5N1 birusaren aldaera horrek mundu osoan. 2023ko abenduan, Kanadako Ingurumen Kontserbazio Sailak [baieztatu zuen hartz polar baten heriotza](#) ere eragin zuela birusak.

Utqiagvik-etik gertu aurkitu zuten hartz, iparraldean dagoen komunitateetako batean, birusaren aldaera hori Ipar Amerikan identifikatu zenetik bi urtera. Ustez, hildako hegaztien gorpuak janda kutsatu zen hartz, eta litekeena da gehiago ere hil izana, nahiz eta ez diren aurkitu.

Albisteak kezka berezia piztu du, hartz polarrak mehatxatutako espezieak baitira, batez ere berotze globalaren ondorioengatik. Baina poloetako beste espezieak ere biziki zaurgarriak dira, gripearen birusak normalean ez baitira iritsi lurralde horietara, eta, beraz, ez baitute babesik. Hala, egoeraren larritasunaz ohartarazi dute zientzialariek. ●



[Albiste gehiago, webgunean](#)